Berrie-Tile

2020 Iraila-2021 Ekaina

//Aurkibidea


1. Kuxkuxeroak

2. Albiste izan dira...

3. Agenda

4. Agenda





MIGUEL ALTUNA Lanbide Heziketa

zure zubia

1. KUXKUXEROAK



Joxu Arana Oregi.
Miguel Altunako Zuzendaria

Eugenio Alles. Miguel Altunako irakaslea

Alberto Bolinaga "BETO". Miguel Altunako irakaslea

Jon Erdozia. EPE prozesuan dagoen irakaslea



*Joxu Arana Oregi

Miguel Altuna Lanbide Heziketako Zuzendaria



Zein egoeratan aurkitzen da orain Miguel Altuna LHII?
Miguel Altuna LHII egoera onean ikusten dut nik, azken urteetan egindako lanak oso fruitu onak ematen ari da eta arlo gehienetan oso maila ona ematen dugula pentsatzen dut.
Horrek ez du esan nahi lasaitu behar garenik. Lana eta langiro ona mantentzen saiatu behar gara lortutako emaitzak mantendu edota hobetzeko.

Zein berrikuntza izango ditugu hurrengo ikasturtean?
Bi berrikuntza nagusi izango ditugu datorren kurtsoan. Batetik FABRIKAZIO ADIMENDUNA espezializazio kurtsoa, Gipuzkoan eskainiko den ikastetxe bakarra gurea izango da, eta goi mailako teknikariei eraldaketa digitalak industrian sortuko dituen erronkei aurre egiteko ezagupenak eskeiniko dizkie; eta bestetik, ZUZENDARITZARI LAGUNTZA goi maila zikloko 2. Kurtsoa, Administrazioa eta Finantzak zikloan titulatuei, kurtso bakarrean enpresa munduan aritzeko ezagupen eta gaitasun gehigarriak emango dizkie.









Zein erronka aurreikusten dituzu hurrengo kurtsorako?

- Orain arte digitalizazioruntz egindako lanak eta Fabrikazio Adimenduna espezializazio kurtsoak balio behar digu digitalizazioaren aro berriak sortzen dituen aukeretara ahalik eta indartsuen eta azkarren heltzeko.
- Ikasle eta ikasle ohien laneratze aukerak erraztea eta ekintzaile sena duten pertsonei baliabideak jarri eta hasierako pausotan bide lagun izatea ere garrantzitsua ikusten dugu.
- Goi mailako ikasketak amaitu ondoren Unibertsitatera gerturatu nahi duten ikasleei, ikasten jarraitzeko animatu eta lagundu.
- Berrikuntza proiektuak aurrera eramatea, bai inguruko enpresekin eta baita Europa edo munduan zeharreko erakundeekin ere.
- Gure indarguneetako bat jendearekiko eta enpresekiko gertutasuna dela iruditzen zait eta hau mantentzen edota hobetzen saiatu behar gara.






Udako oporretarako ze plan?

Oraindik lana amaitzeko dugu, dena prest utzi behar dugu irailean kurtsoa indarrez hasteko eta. Aurten gainera uztaileko azken egunerarte ikastetxea zabalik egongo da matrikulaziorako epeak direla eta. Hortik aurrera, praka luzeak armairuan gorde eta familia, kirola eta lagunekin disfrutatu. Ahh eta asko eskatzea ez bada, eguraldi ona izateak poztu eta piztuko ninduke.









* Eugenio Alles.

Miguel Altunako irakaslea.

Zer eman dizu Miguel Altunak urte hauetan?
Nere bizitzako azken 40 urtetan... dena eman dit. Aberastu egin naiz pertsonalki eta profesionalki. Urte guzti hauetan jende pila bat ezagutu dut: lankide, ikasle, guraso, beste ikastetxe batzuetako profesionalak, ... Gainera esperientzia asko pilatu dut, oso arlo desberdinetan.
Nik uste dut, gure lanbidea oso aberatsa dela alde horretatik. Momentu honetan pena ematen dit hori guztia uzteak.

Eta zuk zer eman diozu Miguel Altunari?
Ni beti ibili izan naiz oso pozik lanean. Abuztuko azken egunetan ia gogotsu egoten nitzen lanera bueltatzeko: talde berriak ezagutu, ordutegiak ikusi, eguneroko martxa hatu, ...
Gauza asko ikasteko aukera eman dit Miguel Altunak eta gero ni ahalegindu naiz jakintza hori Eskolara bueltatzen.

Urte hauetan atzera buelta egin ahal izango bazenu, zerbait egingo al zenuke beste era batera?
Gauza asko egongo dira hobeto egin nitzazkeenak. Adibidez, pena ematen dit CNC gehiago ikasi ez izanak; beste bide bat hartu nuen eta gai hori aparte utzi behar izan nuen. Nahiz eta pixka bat menperatzen dudan, gehiago sakondu izana gustatuko litzaidake.Horrekin batera euskara maila ere hobetzen ahaleginduko nintzateke.

Zer egingo duzu aurrerantzean, eguneko orduak betetzeko?
Ni ez naiz aspertuko! Ez dakit nola pasako ditudan lehenengo aste, hilabete edo urteak... Seguraski zerbait faltan botako dut. Baina afizio asko dauzkat: irakurtzea, pintatzea, ... Adibidez akuarelekin pintatzea asko gustatzen zitzaidan, eta horra bueltatuko naiz. Kirola ere berriro hartuko dut: oso mendizalea naiz eta seguraski ohetik jaiki eta lehenengo gauza izango da mendi bueltatxo bat egitea. Eskola atzeko mendi ingurutik ibiliko naiz, baina atzera begiratu gabe!

Musika ere gustatzen zaizu...
Bai, bai! Disko bat grabatuko dut hemengo (Eskolako) talde batekin, kar kar kar... Eta gero gerokoak.



*Alberto Bolinaga "BETO"

Miguel Altunako irakaslea

Zer eman dizu Miguel Altunak urte hauetan?
lana.

Eta zuk zer eman diozu Miguel Altunari?
Nire denbora eta dedikazioa

Urte hauetan atzera buelta egin ahal izango bazenu, zerbait egingo al zenuke beste era batera?
Ezer ez. Ildo zuzenetik aritu gara lanean.

Zer egingo duzu aurrerantzean, eguneko orduak betetzeko?
Ezer teknikorik ez. Ohikoena, ibiliak egin, mendira eta hondartzara irteerak, etab.









* Jon Erdozia

EPE prozesuan dagoen irakaslea.



1. EPE prozesua zer iruditzen zaizu?
EPE dagoen ikasturtea berez da luzea, ba aurten ospatuko direnak zer esanik ez. 2 ikasturte daramatzagu gai berarekin bueltaka, horrek dakarrenarekin; ezin egona, ziurgabetasuna, zalantza, nekea, ...
Gainera EPE honetan, udan ere ezingo dugu guztiz deskonektatu, irailean programazioaren defentsa baitugu lehen zatia gaindituz gero. Eta bukatzeko, praktikaldia hemendik 2 ikasturte barru izango da.
Azkenean gaindituz gero, merezi izango du baina bestela ... Zerbait positiboa bilatu beharko diogu.

2. Nola zabiltza gogo aldetik?
Ba ... egia esaten badizut, nekatuta, nazkatuta eta bukatzeko gogoakin, baina uste baino hobeto hain luze joanda. Prozesuan parte hartzea erabaki nuenean, banekien sakrifizio haundi bat izango zela eta ondorioz, inguruko guztiak baldintzatuko nituela, baina, ... egin beharra dago eta zaila da momento egokia bilatzea.

3. Zein ondorio izan ditu prozesu honek zure egunerokotasunean?
Gogorra egiten da bizitzako alderdi asko alde batera uztea, ... ni ez nago bakarrik, emaztea eta 2 ume ditut, eta konsziente naiz beraien bizi-kalitatea kaltetuta dagoela baina ... Azkenean, talde lana da, denok moldatu eta ahalegindu behar izan gara nik EPEa prestatzeko denbora izateko. Berriz errepikatzen dut, gaindituz gero merezi du, baina bestela ikasteari luzatutako denbora besteei zuzendu ez diezun denbora da eta umeen kasua bereziki mingarria da.

2. Albiste izan dira...

Informazio guztia: www.maltuna.eus

20/21 ikasturte hasiera modu mailakatuan

Comenzamos el curso 20/21 de forma escalonada



Ikasturte berriarekin plan estrategiko berria diseinatzen

Con el nuevo curso diseñando el nuevo plan estratégico



FEX elkartearekin lankidetza sinatu dugu

Convenio de colaboración con FEX (Fastening Excellence Center)



Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Jardunaldietan parte-hartze zuzena

Participación directa en las Jornadas de Ciencia,Tecnología e Innovación




Escape Room Teknologikoak izan ditugu gurean

Hemos realizado varios Escape Room Tecnológicos



Lanbide Heziketa DUALa eta Lan Praktikak euskeraz: Laneki eta EMUNen eskutik hitzaldia



Jokin Bildarratz eta Jorge Arevalo gure egunerokoa eta etorkizuneko erronkak ezagutzen

Jokin Bildarratz y Jorge Arévalo conociendo nuestro día a día y los retos del futuro



Kutxa Fundazioko laguntzari esker Behar Ekin formazio jarduera martxan

En marcha la actividad formativa Behar-Ekin gracias a la colaboración de la Fundación Kutxa



Albiste izan dira...

Informazio guztia: www.maltuna.eus

Teknopolis saioan gure Fabrikazio Aurreratuaz eta EXAM4.0. plataformaz

En el programa Teknopolis: Nuestra Fabricación Avanzada y la plataforma EXAM4.0



Berriz martxan da Debagoieneko Bizikasi Bitartekaritza zerbitzua

Se reanuda el servicio de Mediación Bizikasi del Alto Deba



Kutxa Fundazioak gure ikasle Pol Galdindo eta Patricia Galan saritu zituen

La Fundación Kutxa premió a nuestros alumnos Pol Galdindo y Patricia Galán



Genero berdintasunean sentsibilizatzeko on-line saioak antolatu genituen

Se organizaron sesiones on-line de sensibilización en igualdad de género



Odol-emate saio arrakastatsuak izan genituen

Tuvimos sesiones exitosas de donación de sangre



GFAk lagunduriko STB-STEAM talentua bultzatuz egitasmoa martxan

En marcha el proyecto STB-apoyado por la DFG



FEX: Lotura torlojutuetako erreferenteek bat egin zuten

FEX: Referentes en uniones atornilladas se alían



Berraktibatu + programa ireki zen

Se abrió el programa Berraktibatu +



Albiste izan dira...

Informazio guztia: www.maltuna.eus









San Juan Bosco egun berezia aurtengoa

Día especial de San Juan Bosco











Albiste izan dira...

Informazio guztia: www.maltuna.eus

Aurtengo Ikasenpresa azoka Streaming bidezkoa

La feria Ikasenpresa de este año en streaming



Mekatronikako ikasleak gure tailerreko gailuak muntatzen

Alummnado de Mecatrónica montando ordenadores y lectores de taller



Izarraitz LHIIKO ikasleak izan genituen saiakuntzak egiten

Alumnado del CIFP Izarraitz realizó ensayos en nuestro centro



Debagoiena2030 eskutik "trantsizio energetikoaren erronkan

Participamos en el reto de la transición energética Debagoiena 2030



Martxoak 8: Emakumeen Nazioarteko Eguna

El 8 de Marzo: Día Internacional de la Mujer



Bikaintasun Profesionaleko Zentroen konferentzian aurkezpena egin genuen

Presentamos nuestro centro en la Conferencia de Centros de Excelencia Profesional



Eraldaketa digitalari loturiko bisita:Sailburuordetza, Laura Oliveras eta Marc Vidal

Visita asociada a la transformación digital: Viceconsejería, Laura Oliveras y Marc Vidal



Aramaioko Herri Eskolako ikasle talde bat Escape Roomean

Alumnado de Aramaio Herri eskola en el Escape Room



Albiste izan dira...

Informazio guztia: www.maltuna.eus

Trans-Atlantic Technology and Training Alliance konferentzian aurkezpena egin genuen

Presentación en Trans-Atlantic Technology and Training Alliance



Azterkosta erakusketa Miguel Altunako zubian

Exposición Azterkosta en el puente de Miguel Altuna



IMME Elkartekoek biltegi kudeaketako formazioa jasotzen

Miembros de la Asociación IMME, recibieron formación de gestión del almacén



Eskola inguruak txukuntzen aritu ziren

Se dedicaron a limpiar los alrededores del centro



ENPRESAK ESKOLAN jardunaldiak: ZERBIMEK

Jornadas Enpresak Eskolan: ZERBIMEK



Aranzadi Ikastolako 5.mailako. ikasleak izan Escape Roomean

Alumnado de 5º de la ESO de la Ikastola Aranzadi en el Escape Room



ENPRESAK ESKOLAN jardunaldiak: Soraluce S.Coop.

Jornadas Enpresak Eskolan: Soraluce S.Coop



Felipe Uriartek osziloskopioa eta liburuak opari elektrizitate alorrerako

Felipe Uriarte nos regaló un osciloscopio y varios libros para electricidad



Albiste izan dira...

Informazio guztia: www.maltuna.eus

Eskola inguruak txukuntzen aritu ziren

Presentando el proyecto Engendering STEM en la jornada OPEN DAY de Tknika




ENPRESAK ESKOLAN jardunaldiak: Ulma Packaging S.Coop.

Jornadas ENPRESAK ESKOLAN: Ulma Packaging S.COOP




Produktu baten diseinuaren kudeaketa eta digitalizazioa ARITUrekin

Gestión y digitalización del diseño de un producto de la mano de ARITU



Berrikuntza Proiektuen Difusiorako Erasmus+ ekitaldian

En la jornada de Dipusión de los Proyectos de Innovación Erasmus+



ENPRESAK ESKOLAN jardunaldiak: Goizper

Jornadas ENPRESAK ESKOLAN: Goizper



3 ikasturtetan 2 titulazio ofizial lortzeko aukera berria

Nueva oportunidad de obtener 2 titulaciones oficiales en 3 cursos



"LHk konektatzen du" XXV Gaztela Leongo LHko Jardunaldian aurkezpena egin genuen

Hicimos la presentación en las XXV Jornadas de FP de Castilla y León: "La FP conecta"



Berrikuntza proiektuetarako eta elkarlanerako ateak zabalik

Abiertas las puertas a proyectos de innovación y a la colaboración



Albiste izan dira...

Informazio guztia: www.maltuna.eus

Eskoriatzako HUHEZI eta Kataluniako Escoles FEDACen bisita jaso genuen

Recibimos la visita de HUHEZI de Eskoriatza y de Escoles FEDAC de Cataluña



Gure Fabrikazio Aurreratuko 4.0.tailerra ezagutzen?

¿Conoces el taller de Fabricación Avanzada 4.0 de Miguel Altuna?



BeArt Bergarako Artisten Elkartearekin hitzarmena

Firmamos un convenio con la Asociación de Artistas de Bergara Beart



EKINola ekintzailetza jardunaldiak antolatu genituen

Hemos organizado las jornadas de emprendizaje EKINola



Euskararen erabilera lan-munduan sustatzeko proiektua

Programa para fomentar el uso del euskera en el mundo laboral



Amaituta Miguel Altunako murala

Finalizado el nuevo mural de Miguel Altuna



Digitalizazioan eredu: simulazioak eta jokoen aplikazioak ikaskuntzan

Ejemplares en la transición a lo digital: simulaciones y juegos en los aprendizajes



Agur Elementala, Kaixo Miguel Altuna bideoa. Ikusi duzu?

Se dedicaron a limpiar los alrededores del centro



Albiste izan dira...

Informazio guztia: www.maltuna.eus

EKINOLA2021:Ideia onena saritu eta ekintzaileei eskerrak

EKINOLA2021: Premio a la mejor idea y agradecimiento a las personas emprendedoras



Advanced Factories azokan teknologia berritzaileenak ezagutzen

En la feria Advanced Factories conociendo las nuevas tecnologías



Jose Mari Larrañaga lankide eta zuzendari ohia hil da

Fallece nuestro compañero y ex director José Mari Larrañaga



STEAM KO-IN egitasmoan ikastetxeekin enpresetan: Gehiber, Lazpiur, Metagra eta Zerbimek.

Con el proyecto STEAM KO-IN y junto con los centros educativos, en las empresas: Gehiber, Lazpiur, Metagra y Zerbimek.



EXAM 4.0 bikaintasun plataformari buruzko aurkezpena

Presentación de la Plataforma de Excelencia EXAM 4.0



BerrieMAile jaioa da.Gure aldizkari berria

Ha nacido nuestra nueva revista:: BerrieMAaile

Eugenio Alles eta Alberto Bolinaga "Beto" jubilatzen zaizkigu

Se nos jubilan Eugenio Alles y Alberto Bolinaga "Beto"



Miguel Altunako txikien 1.udalekuak

1.ª Colonias de txikis de Miguel Altuna





Informazio guztia: www.maltuna.eus

Kontaiguzu!

Miguel Altuna Lanbide Heziketako langilea edo ikaslea bazara, zuk ere parte hartu dezakezu aldizkari honetan!

Nola? Ikastetxeari edo ikasketei loturik, albiste izan daitekeen irteera, lehiaketa, sari, bisita,... egiten baduzu, KomunikazioArduraduna@maltuna.eus helbidera bidaliz (informazio labur bat eta argazki batzuk, posible bada).

*** Langileek ikastetxeko SITEa erabili dezakete.**

KOMUNIKAZIO TALDEA
KomunikazioArduraduna@maltuna.eus

3. Agenda



Ohiko matrikulazio-aldia:

- **I. epea: uztailaren 19tik 21era, biak barne.**
- **II. epea: uztailaren 23tik 27ra, biak barne.**
- **III. epea: uztailaren 29tik 30era, biak barne.**

Ez-ohiko matrikulazio-aldia:

- Irailaren 1etik urriaren15era, biak barne
- Modalitate partzialeko matrikulak: Uztailaren 19tik 30era egingo dira.

**Covid-19ak eragindako egoera dela eta, MATRIKULA eskolan egin ahal izateko ezinbestekoa da hitzordua eskatzea.*

**OHARRA: Ikastetxera etorri behar duzun egunean, gogoratu zure nortasun-agiriaren (NAN) kopia bat ekarri behar duzula.*

HITZORDUA ESKATZEKO: www.maltuna.eus

Zalantzarik izanez gero, deitu: 943 899 271 – 943 899 272

4. Denbora pasa

SUDOKULETRA


Probatu eta jaso denbora!

I		E	G		M
			U		E
L		G		U	
			M		
		U			
G	L	M	I		U
M	I	G	U	E	L
A	L	T	U	N	A

IKER IGARTUA lankidearen liburu berria:

IKER IGARTUA lankideak liburua argitaratu berri duen liburua eskuratu nahi?

- Duela hiru urte Etiopiara egindako bidai baten inguruko hausnarketak eta gorabeherak kontatzen ditu.
- Momentuz, Iker Igartuari zuzenean eskatzeko aukera: iigartua@maltuna.eus
- Argitaletxeak laister jarriko ditu salgai beraien webgunean (https://www.donbuk.com) eta denda batzuetan.
- Prezioa: 16€



Hurrengo alea: 2021/2022 ikasturtean izango da

Zer iruditu zaizu aldizkari hau? Iritzia eman edo ekarpenen bat egiteko, idatziguzu KomunikazioArduraduna@maltuna.eus helbidera. Eskerrik asko!

Komunikazio Taldea.

